

ISPILU AURREAN

Deskribapena: Pelikula desberdinetako imajinak ageri dira non gizonezko bat ageri den ispilu aurrean hizketan.

Gizonezkoa: “You´re talking to me? You´re talking to me?”

Kike (off ahotsa): Noizbait ispilu aurrean hitz egin ez duenak telebista itzali dezala!

Deskribapena: Telebista itzali izanaren imajina agertzen da lehenengo eta ondoren berriro ere pertsona desberdinak ispilu aurrean hizketan eta loro bat azkenik.

Kike (off ahotsa): E! Piztu oraintxe bertan! Hortxe jarraitzen duzue, ezta? Noski! Ispilu aurrean hitz egitea zaletasun unibertsala da ta!